


*Inauteriak'18*



TOLOSA



# UrbilBox, inauterietan ere bai.

Oraindik indarririk geratzen bazaizu, deskontuak dituzten zure aisia planak goza itzazu Urbilen.

# URBIL BOX

12€

## AISIPLANA

Bazkaria edo afaria  
+ zinemarako sarrera.

9,50€

## PARTYPLANA

VIPS Smart-en umeentzako  
menua+ zinemarako sarrera  
(Menua soilik 12 urte baino  
gutxiago dutenentzako).

12€

## SUPERPLANA

Txikiguay-rako denbora  
mugagabeko sarrera  
+ zinemarako sarrera.

23€

## BEAUTYPLANA

Ile-apaindegia + manikura  
+ ekitaldi makillajea.




[www.urbil.es](http://www.urbil.es)





Aurten berehalakoan ditugu iñauteriak, gabonak bukatu berritan txaranga hotsak entzuten hasiak gara eta doinu kantu hauek gogoratzuz mozorroak prestatzen gabiltza, karrozak atontzen eta buruari eragiten aurtengoak ere bereziak izan daitezten, urtero bezala.

Tolosako Iñauterietan umore ona izaten da nagusi. Lagunarte jatorra, ez da besterik behar, hain maiteak ditugun jaietz gozatzeko. Txupinazoa, sokamuturra, txarangak, parodiak... Biziak dira iñauteriak, edonork du



lekua gure jaietan eta edozer gerta daiteke, eta hori horrela izanda ere errespetuan eta berdintasunean oinarritutako festak direla ez dezagun ahantzi. Tolosak ez ditu ez eraso sexistak, ezta ere bizikidetzaren kontrako jarrerak onartzen.

Umerez eta errespetuz goza ditzagula, beste behin, hain maiteak ditugun Iñauteriak, baina ixo!! txaranga datorrela kale Nagusitik... banoa atzetik...

**Olatz Peon Ormazabal**  
TOLOSAKO ALKATEA

El carnaval de este año es temprano; nada más terminar la Navidad, hemos empezado a oír la música de las txarangas, y a la vez que traemos a la memoria melodías y canciones, preparamos los disfraces y carrozas, y como todos los años, agudizaremos el ingenio para que los de este 2018 también sean especiales.

En los carnavales de Tolosa predomina el buen humor. Una buena compañía, no hace falta nada más, para disfrutar de estas fiestas que tanto queremos. El txupinazo, la sokamuturra, txarangas, parodias... Los carnavales están llenos de vida, cualquiera encuentra su sitio en esta fiesta, puede ocurrir cualquier cosa, pero no olvidemos que son unas fiestas basadas en el respeto y en la igualdad. Tolosa no tolera las agresiones sexistas ni las actitudes contra la convivencia.

Disfrutemos con buen humor y con respeto de estas fiestas tan entrañables, pero... ¡silencio! que viene una charanga por la calle Mayor... me voy tras ella..

*Karroza-  
konpartsa  
berdinzaleena  
sarituko da*



*2017ko  
Iñauteriak.  
Karroza  
berdinzaleena*



# URKAZ

eraikuntzak



Obra berria



Birgaitzea



Berrikuntza



Urbanizazioa

CERTIFIED  
PASSIVE HOUSE  
TRADESPERSON



PASSIVE HOUSE TRADESPERSON ziurtagiri ofiziala  
daukagu energia iturririk gabeko etxebizitzak eraikitzeko



Okobio, 52 · BELAUNTZA · 20491 Gipuzkoa · Tels: 943 670 445 - 661 951 089

<http://www.urkaz.com> · [info@urkaz.com](mailto:info@urkaz.com)



# Larunbata, 3

Tolosako Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroek lagundurik. Irteera Plaza Zaharretik.

**10.30** Gigantes y cabezudos

Aiz-Orratz elkarteko txaranga irtengo da elkartetik bertatik.

**12.00** Salida de la charanga Veleta-Aiz Orratz.

Haur Jaialdia, Aiz-Orratz Elkarteak antolatuta, Leidor aretoan. Jaialdian Txantxo Lehiaketako irabazleen berri emango da.

**12.30** Festival Infantil en el Leidor.

Urdiña Txiki Elkarteak antolatuta, Kaldereroen Konpartsa aterako da Plaza Zaharretik.

**19.00** Comparsa de Caldereros/as

"Incansables" txaranga kalez kale.

**23.30** Charanga Incansables.

# Igandea, 4

Iñauterietako kontzertua, Tolosako Musika Banda eta Udal Txistulari Banda, Berdura plazan.

**12.15** Concierto; Banda de Música y Banda de Txistularis en Berdura plaza.





# Ostegun Gizona, 8

Udal Txistulari Bandak Iñauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiko ibilbidea.	<b>11.30</b>	Txistularis; zortziko de carnaval.
Ostegun Gizen konpartsaren agerpena plaza zaharrean. Kabi-Alai elkarteak "Berazubiko Karroza" 2018ko "Inauterizale Kuttuna" izendatuko du. Ondoren pregoia	<b>11.45</b>	Llegada de la comparsa de Jueves Gordo Nombramiento del entrañable carnavalero. Pregón.
Plaza Zaharrean, suziria jaien hasiera iragartzeko.	<b>12.00</b>	Chupinazo.
Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Aroztegieta kaletik.	<b>12.00</b>	Charangas Pintxana y Kabi Alai.
Txosnagunean Zahagi ardoa. Zuk jana, txoznak edana.	<b>14:00</b>	Zahagi ardoa.
Zezen Plazan zezen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaitua. Ondoren, kalejira.	<b>16.30</b>	Añojos en la Plaza de Toros y pasacalles.
Emakumeon plazatik "zezen suzkoa" irtengo da. Antolatzailea Ero Etxe Elkartea.	<b>19:30</b>	Toro de fuego.
Aurrera Kirol Elkaratearen danborrada.	<b>20.00</b>	Tamborrada del Aurrera K.E.
Txosnagunean "Akerjenbe", "Autobus magikoa", eta "Ziribulio Soun" taldeen kontzertuak.	<b>23:00</b>	Concierto: "Akerjenbe", "Autobus magikoa", "Ziribulio Soun"



# Ostiral Mehea, 9

Ozenki Txistulari taldearen kalejira.

**11:30**

Txistularis, Ozenki taldea.

Zezen Plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira.

**16.30**

Añojos y pasacalles.

Ostiral Mehe eguneko danborrada.

**20:30**

Tamborrada de Viernes Flaco.

Txosnagunean "Antzarrak perratzero", "Hbemus papam", "Oztopo", eta "Guregan" taldeen kontzertuak.

**22:30**

Concierto: "Antzarrak perratzero", "Hbemus papam", "Oztopo", y "Guregan"

Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

**22.30**

Festival de Viernes Flaco en el Leidor.

"Jainekin" txarangaren irteera.

**23:30**

Jainekin charanga.





[www.hogeitahamahiru.com](http://www.hogeitahamahiru.com)

Polígono Bazurka nº 1  
20260 Alegi - Tel. 943 698 604

GOURMET OKINDEGIA GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

*Etor Zaitzte gure inauterietako - Menu berezia dastatzera • Ven a disfrutar nuestro menú especial Carnaval*

TOLOSA

Hipermerkatua

lurre auzoa, z/g

Tel. 943 67 09 00



**EROSKI**

zurekin



**ISASTEGI**  
sagardotegia



Aldabe Txiki Auzoa 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel: 943 65 29 64 [isastegi@isastegi.com](mailto:isastegi@isastegi.com)

**TXOTX!!!** Urtarrilak 13  
Apirilak 28



**Hizkuntza Eskola Ofizialak**  
Escuelas Oficiales de Idiomas

ENGLISH · FRANÇAIS

MATRÍCULA LIBRE  
Del 15 al 28 de Febrero  
(hasta las 13:00 h)

36,18€

MATRIKULA LIBREA  
Otsailaren 15etik 28ra  
(13:00ak arte)

TF: 943 69 75 60

**ITZIAR**  
**PORTABALES**  
LOGOPEDIA GABINETEA

*Ondo pasa inauteriak!!!*



[www.itziarportabales.com](http://www.itziarportabales.com) • 696 745 270  
San Francisco pasealekua, 17 - 1D • 20400 TOLOSA



**C/ Oria nº 6 Bajo**  
**20400 TOLOSA (Gipuzkoa)**  
**Tel. 943 654 424**  
**comercial@tindumargoak.com**

# Zaldunita berpera, 10

Tolosako Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroek lagundurik. Irteera Plaza Zaharretik.	<b>11:00</b>	Gigantes y cabezudos.
Musika eskolako ikasle bandaren kalejiraren irteera, musika eskolatik.	<b>11:00</b>	Concierto de Alumnado de la Escuela de Música.
Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.	<b>11:00</b>	Salida de la txaranga Kabi-Alai.
Udaberri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik. Herriko hainbat tokitan saioak eskainiko dituzte.	<b>11:30</b>	Pasacalles de dantzaris.
Aiz Orratz elkarteak antolatuta, haur danborrada aterako da Geltoki kaletik.	<b>17:00</b>	Tamborrada Infantil.
Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.	<b>17:00</b>	Salida de la txaranga Kabi-Alai.
Tolosako Danborradaren irteera Plaza Zaharretik.	<b>19:00</b>	Tamborrada.
Txosnagunean "Malizia", "Skabidean", "Zartako-k" eta "Ahuntzape" taldeen kontzertuak.	<b>22:30</b>	Concierto: "Malizia", "Skabidean", "Zartako-k" eta "Ahuntzape"
"Iraunkorrak" eta "Oriako Txaranga" txarangak kalez kale.	<b>23:30</b>	Charangas "Iraunkorrak" y "Charanga del Oria"



# Zaldunita, 11

Diana, Tolosako Musika Bandarekin.	<b>8.00</b>	Diana.
Herriko txistulari bandak ohiko ibilbidea eginez, Iñauterietako Zortzikoa joko du.	<b>8.45</b>	Txistularis, zortziko de carnaval.
Txarangen irteera.	<b>10.00</b>	Salida de charangas.
Plaza Berrian sokamuturra Alcoyano txarangak alaituta.	<b>11.00</b>	Sokamuturra en Plaza Berria.
Karroza eta konpartsen irteera.	<b>11.00</b>	Salida de carrozas y comparsas.
Berdura plazan Aiz Orratz eta Kabila txarangen 75. urteurreneko emanaldia eta oroigarri banaketa.	<b>12:00</b>	Berdura Plaza. 75 aniversario charangas Aiz Orratz y Kabila.
Udal Txistulari Bandak "Idiarena" pieza joz egingo du ohiko ibilbidea.	<b>15.45</b>	Txistularis, Idiarena.
Kalejira Veleta-Aiz Orratz, Txapel Haundi eta Sukalde txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.	<b>16.00</b>	Pasacalles; Veleta, Txapel Haundi, Sukalde.
Zezenak Zezen Plazan; txarangak eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.	<b>16.30</b>	Embolados y pasacalles.
Txosnagunean kontzertua: "Laket".	<b>19:00</b>	Concierto: "Laket"
Dantzaldia Berdura Plazan Veleta-Aiz Orratz, Txapel Haundi eta Sukalde txarangekin.	<b>19.00</b>	Bailables en Berdura plaza.
Txosnagunean "Sukarra 37", "Ingo al deu" eta "DJ Jotatxo" taldeen kontzertua.	<b>22:30</b>	Concierto: "Sukarra 37", "Ingo al deu" eta "DJ Jotatxo"
"Kalean" eta "Oriako Txaranga" txarangak kalez kale.	<b>23.30</b>	Charangas "Kalean" y "Charanga del Oria".



**ENPRESA  
AHOLKULARITZA**

*Con la tranquilidad de saberse  
asesorado por profesionales*

**AI ARGITU  
ASESORES**

San Frantzisko Ibiltokia, 5 - T. 943 654 727 - 20400 Tolosa  
argitu@argitu.es - www.argitu.es

**Sanz**

CLÍNICA DENTAL  
ODONTÓLOGO GENERAL  
IMPLANTES  
PRÓTESIS



Rondilla, 48 - 1B  
20400  
TOLOSA  
Tel. 943 65 33 39

Dr. Fco. Javier Sanz Céspedes  
Médico-Odontólogo  
Colegiado 20.000.573

**ORIA BEILATOKIA  
TANATORIO**

Pol. Usabal nº 12  
20400 TOLOSA  
Tel. 943 697 579  
tolosa@funerariaoria.com

**XOILAN**  
GARBIKETAK

KOMUNITATE, GARAJE, BULEGO, LANTEGI, MERKATARITZALOKAL,  
ERAIKUNTZA PUBLIKO ETAB-EN MANTENIMENDUA,  
KRISTALAK, GARBIKETA OROKORRAK, OBRA ONDORENGO  
GARBIKETAK, LURZORUEN DISDIRATZEA...

T. 943 670 626 S. 659 045 765 - 669 839 166  
Igarondo, 1 - Behea - TOLOSA

info@xoilan.com  
www.xoilan.com

**goya.**

**SALMENTA ZUZENA** T. 943 655 224  
www.carnicasgoya.com

Pol. Ind. Benta-Aldea, 4 - 20270 ANOETA (Gipuzkoa)

VII CONCURSO  
NACIONAL DE  
PARRILLA

**MEJOR  
CARNE  
2017**

**AVIA**

ARRIARAN

**ZURE KALITATEZKO ZERBITZUGUNEA  
ERREGAIK - GARBIKETA ZENTRUA - DENDA**

**ONDO PASA IÑAUTERIAK!!**

Larramendi, 28 - Tolosa - Tel. 943 67 49 82  
info@arriaran.com - www.arriaran.com



# no+vello®

fotodepilación con tarifa plana



## LÁSER DIODO + IPL SHR

**30€**  
zona/sesioa



### TOLOSA

San Frantzisko, 24

Tel. 943 903 664

[tolosacentro@nomasvello.com](mailto:tolosacentro@nomasvello.com)

### BEASAIN

Dolare, 1

Tel. 943 041 715

[beasain@nomasvello.com](mailto:beasain@nomasvello.com)

Iriarte  jatetxea

### Menú Carnaval Degustación

Salpicón de marisco con aire de mar  
Verdura de invierno, alcachofa, borraja y cardo con salsa romesco  
Caldo de jamón con huevo a 60 y foie

Merluza parrilla con sardina ahumada y mejillones  
Cochinillo o taco de chuleta (a elegir)  
Pizza dulce de manzana de errezil con canela y helado de vainilla  
Café - Vino 1/2 botella de Crianza

**50€** todo incluido




Jose M<sup>o</sup> Goikoetxea, 34 - 20493 BERRROBI (Gipuzkoa)  
Tlf: 943 683 078 - Email: [info@iriartejatetxea.com](mailto:info@iriartejatetxea.com)

# Astelenita, 12

Txarangen irteera.	<b>9.00</b>	Salida de charangas.
Plaza Berrian sokamuturra Berazubi txarangak alaituta.	<b>11.00</b>	Sokamuturra en Plaza Berria.
Karroza eta konpartsen irteera.	<b>11.00</b>	Salida de carrozas y comparsas
Kalejira Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.	<b>16.00</b>	Pasacalles; Poca Tripa, Tolosano y Arco Iris
Zezenak Zezen Plazan; txarangak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.	<b>16.30</b>	Embolados.
Dantzaldia Berdura Plazan, Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin.	<b>19.00</b>	Bailables en Berdura plaza.
Txosnagunean erromeria: "Fan&go"	<b>19.00</b>	Concierto: " Fan&go"
Txosnagunean kontzertua: "Eztanda", ondoren "DJ Bull".	<b>22.30</b>	Concierto: "Eztanda" y "DJ Bull".
"Bonberenea" eta "Incansables" txarangak kalez kale.	<b>23.30</b>	Charangas "Bonberenea" e "Incansables"





# Asteartita, 13

Udal Txistulari Bandak Alborada joko du Udaletxeko arkupetan, Berdura plazan eta Felipe Gorriti plazan.	<b>6.00</b>	Alborada.
Elkarteetako txarangek alaituta, Pattar zezena Zezen Plazan. Ondoren kalejira.	<b>8.00</b>	Toro del aguardiente y charangas.
Plaza Berrian sokamuturra Kabi Alai txarangak alaituta.	<b>11.00</b>	Sokamuturra en plaza Berria.
Karroza eta konpartsen irteera.	<b>11.00</b>	Salida de carrozas y comparsas.
Plaza Berrian txarangen bilkura; San Esteban, Sukalde, Arco Iris eta Txapel Haundi txarangen eskutik. Euria bada, Berdura plazan. Ondoren kalejira Gaztelako Ateraino	<b>12:00</b>	Alarde de charangas en plaza Berria.
Herriko txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, "Idiarena" pieza joko du.	<b>15.45</b>	Txistularis, Idiarena.
San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik	<b>16.00</b>	Pasacalles, San Esteban, Kabila y Urdiña Txiki.
Zezenak Zezen Plazan; txarangak eta txistulariak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.	<b>16.30</b>	Embolados.
Dantzaldia Berdura plazan San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki txarangekin.	<b>19.00</b>	Bailables en Berdura plaza.
"Sardinaren agurra". Kalejira Gure Txokoa elkartetik abiatuta.	<b>23.00</b>	Despedida de la sardina.
"Incansables Zaharrak" txarangaren irteera.	<b>23:30</b>	Charanga "Incansables zaharrak".



# Piñata Igandea, 18

Poca-Tripa txaranga lurreamendi Egoitzara joango da.

**11.00**

Visita de la charanga Poca-Tripa a la Residencia Lurreamendi.

Zezen plazan xexen festa Klean txarangak alaituta. Ondoren kalejira.

**16.30**

En la plaza de Toros, ñojos. Pasacalles.





# Gogoan Izan...

- Ongi etorri Tolosara gurekin jaiez gozatzera.  
*Bienvenido/a a Tolosa a disfrutar con nosotros/as del carnaval.*
- Jai alaiak eta gogotsuak desio ditugu.  
*Deseamos unos carnavales donde prime la alegría y diversión.*
- Parte hartu eta ondo pasa, baina errespetuz. *Participa y disfruta, pero con respeto.*
- Zaindu iñauteriak, neurtu bolumena. Zaratak ez dezala algara isildu.  
*Cuida los carnavales. Controla el volumen. Que el ruido no acalle la risa.*
- Alkoholarekiko jarrera arduratsua izan. *Actitud responsable con el alcohol.*
- Tolosak EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano.  
*Tolosa dice ¡NO! a la violencia sexista. Joka sano.*
- Edozein arazoren aurrean 112 telefono zenbakira edo Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko Arreta zerbitzura (900 84 01 11) deitu.  
*Ante cualquier problema llama al 112 o al servicio de Asistencia 24h del Gobierno Vasco (900 84 01 11).*
- Norbaiti zerbait gertatuz gero, LAGUNDU iezaiozu. *Ayuda al / a la que lo necesite.*
- Iñauterietan ere birziklatu, berrerabili eta zaborra gutxitu. Zaindu iñauteriak!  
*En carnavales también recicla, reutiliza y reduce la basura. ¡Cuida los carnavales!*
- Ez oztopatu garbiketako lanak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela gainontzekook festetan ondo pasa dezagun. *No obstaculizar el trabajo de los operarios de limpieza.*
- Komun publikoak erabili. *Utiliza los baños públicos.*
- Zerkausian jantokia dago eta Lapurdi plazan Herri Sagardotegia.  
*Comedor en el Tinglado y sidrería en la plaza Lapurdi.*
- Iñauterien jarraipen osoa egingo du Udalak **www.tolosa.eus** -en.  
*Seguimiento completo del carnaval en **www.tolosa.eus***
- **Berdintasun Saria:** Berdintasunezko eta indarkeria sexistaren aurkako baloreak, jarrerak, irudiak... bultzatzea sarituko da.  
***Premio de Igualdad:** Se premiará mostrar valores, actitudes e imágenes a favor de la igualdad y contra la violencia machista.*



**Txapak eskuragarri  
Kultur Etxean eta  
Udaletxean!**

**JOKA SANO**  
**Ondo pasa, pasa gabe!!!**


# 50 urte irribarreak sortuz...

1968. urtean ospatu zen, lehenengoz, Aiz Orratz elkartearen Haur Jaialdia. 50 urte igaro dira ordutik, inauteri aurreko ezinbesteko hitzordu bihurtuz; mende erdi bat, dozenaka haurrei irribarreak sortuz.

Zerkausia izan genuen aterpe lehen urte haietan. Urteren batean ere Berazubiko kiroldegi zaharrear egin zen. Baina elkartearen 50. urteurrenaren aitzakiarekin, 1984an Beotibar pilotalekuan egitera pasa zen. Ordura arte, guiñol ikuskizun bat izaten zen jaialdiaren ardatz nagusia, eta ondoren ogitartekoak banatzen ziren haur guztien artean. Inauterietako Haur Erregina ere aukeratzen zen bertan.

Itxuraldatuta iritsi zen jaialdia urtemuga horretara, eta arrakasta nabaria izan zen: 3.000 pertsona batu ziren frontoian. Izan genuen, bai, arazorik baimen kontuekin-eta, baina eskerrak inoiz ez zen ezer pasa. Beste garai batzuk ziren...

Urte hauetan guztietan, jaialdiaren parte aktibo izan dira, besteak beste, Gainberriko ikasleak, Xabier Telleria eta Kike Amonarriz, Alberto magoa, Jonmagig, Poxpolo eta Mokolo pailazoak, Xuridin edota Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoak. Ezin ahaztu mozorro lehiaketan laguntzaile izan diren emakume jostunak. Mila esker guztiei, eta jarrai dezagula beste 50 urtez inauteri bezperetan haurrei irribarreak sortuz!



# ...eta 75 urte kaleak alaituz

Haur Jaialdiarena ez da Aiz Orratz elkartearen ospakizun bakarra izango aurten. Txarangak ere 75 urte egingo ditu Tolosako kaleak alaitzen.

1943. urtean osatu zen lehen taldea, Esteban Elola zuzendari zela. Lehen bi urteetan pijama batekin ateratzen ginen kalera. Jantziz aldatu genuen bi urte horien ondoren –frac bat eta kartoizko kapela bat–, baita zuzendariz ere: Casimiro Alustizak hartu zuen ardura hori.

1950ean Luis Collado pasa zen txaranga zuzentzera, eta hark bere iloba Arturo eraman zuen txarangara. Txarangako lehen haurra izan zen, eta urte gutxira berak hartu zuen zuzendari makila, inauterietako zuzendaririk gazteenetakoa bihurtuz.

KABILA elkarteak 1940. urteko maiatzaren 28an sortu zen, baina bere txarangak ibilbide motzagoa du, 1942ko Iñauterietan jantzi baitzuten lehen aldiz txilaba txuria eta azkar fez berdearengatik aldatu zuten turbantea. Lehen Iñauteri horretatik, urtero parte hartu du elkarteak festan, bat ere huts egin gabe, Aiz Orratz elkarteak ere orain arte egin duen moduan.

## KABILA ELKARTEA

Garai hartan marinelez janzten ginen; kolore zuriz, ordea.

Antza, zuriak zikintzeko arrisku handia zuen, eta marinek jantzia kolorez aldatzea erabaki zen 1969. urtean, Carlos Muñoa zuzendari izendatzearekin batera. Gaur egun darabilgun jantzi urdinaren aldeko hautua egin zen. Muñoa 1984. urtera arte izan zen zuzendari eta gerora, hainbat bazkiden partekatu dute ardura hori: Julian Aizpuru, Arturo Barrio, Alfonso Narro, Patxi Agirre, Ramon Jauregi, Iñaki Ormazabal, Igor Martinez de Lecea, Javi Grandes edo Iban Ormazabal.

Ordutik hona, guztiok ezagutzen dugun jantzia daramagu Zaldunita, Astelenita eta Asteartitan. Eta zer esan, prest gaudela beste 75 urtez, inauterien itsaso zabalean, marea musikaz astintzen jarraitzeko. Beti umorean. Ondo bizi eta gora Tolosako Inauteriak!

**Aiz Orratz  
Veleta elkarteak**

La sociedad KABILA se constituye como tal el 28 de mayo de 1940, aunque es en los Carnavales de 1942 cuando por primera vez sale su txaranga vestida con la clásica chilaba blanca y un turbante que pronto es sustituido por su característico fez verde. Desde ese año ha participado ininterrumpidamente en todos nuestros Iñauteriak, hecho que comparte únicamente la charanga del Veleta.

# Urdiña Txiki



1943n sortu zen Urdiña Txiki elkarte eta txarangak 1968n egin zuen bere lehen irteera. Beti egon da gure herriko kaleak musikatzen eta desiotzat dugu urte askotan jarraitzea zeregin horretan, beti bezain alai. Mila esker, Urdiña Txiki!

La sociedad Urdiña Txiki se creó en el 1943 y su charanga salió a la calle por primera vez en 1968. Siempre ha llenado de música las calles de la villa y deseamos que siga en ello muchos años más, igual de alegres. ¡Mil gracias, Urdiña Txiki!


# Iñauteriazale kuttuna 2018



## Berazubiko harroza



Joseja Garcia.



Santi Balza.

## Iñauteriak 2018. Aurrekontua

KARROZA KONPARTSAK	54.847,87 €
TXARANGAK	67.347,00 €
EMANALDI ETA IKUSKIZUNAK	36.061,60 €
ZEZEN IKUSKIZUNAK	34.294,47 €
DANBORRADA	6.853,00 €
ARGITALPENAK, KOMUNIKAZIOA	13.352,10 €
EGILE ESKUBIDEAK	3.000,00 €
GASTU OROKORRAK	20.909,62 €
GUZTIRA	236.665,66 €



MERTXE ARREGUI  
LOGOPEDA • PEDAGOGA  
DOL.41.365 DOL.1.007

Dificultades lectoras "Dislexia"

- Problemas de comprensión
- Velocidad lectora lenta



Mejora la lectura desde casa con el ordenador

INFORMATE SIN COMPROMISO

Iñauteriak beti alaitzen gaitu guztiz. Aupa Iñauteriak!

Telf.: 943651260

[www.mertxearegui.com](http://www.mertxearegui.com)



Iñauteriko argazkiak dendan salgai

Venta de fotos en la tienda

GORA IÑAUTERIAK  
ONDO PASA



iñaki elola photo video studio 609 04 04 14 / 943 50 62 36

iñaki  
elola  
Photo Video  
studio

Argitaratzailea:  
Tolosako Udala

Argazkilaria:  
Iñaki Elola

MIC Edizioak

Tel.: 902 271 902  
[www.editorialmic.com](http://www.editorialmic.com)

# TOLOSA MOTOR



San Esteban, 14-a - 20400 TOLOSA - Guipuzkoa  
[www.tolosamotor.com](http://www.tolosamotor.com) • 943 65 03 37



Larramendi Kalea, 32 - Tolosa



## ECHAIDE CONSTRUCCIONES

30 años haciendo realidad proyectos  
de construcción públicos y privados



OBRA CIVIL - EDIFICACIÓN - INDUSTRIA - CUBIERTAS

Avenida Álava, Bloque 5 - bajo · 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
T. 943 65 31 86 · [administracion@echaide.com](mailto:administracion@echaide.com) · [www.echaide.com](http://www.echaide.com)



# Mikel ALTZARIAK

Usabal Industrialdea, Iruña Etorbidea, 22G  
20400 TOLOSA - Gipuzkoa  
T./Fax. 943 67 55 36

[www.mikelaltzariak.com](http://www.mikelaltzariak.com) • [mikelaltzariak@gmail.com](mailto:mikelaltzariak@gmail.com)

## ERGOIEN AUTOAK

Salmenta eta Tailerra.  
Hurbil zaitez!



Polígono Industrialdea, 11. Anoeta. Tlf: 943 65 32 08 (salmenta) - 943 31 82 07 (tailerra)

# Algoria

Haur arropa denda

boboli KANZ DÖJI



Königsstuhl

LEMMI



Telfs: 943 049 978 - 635 628 648 · [algaratolosa@gmail.com](mailto:algaratolosa@gmail.com)  
Laskorain, 5 - bajo · 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)





 /Altuna-Harakinaksl

[www.altunaharakinak.com](http://www.altunaharakinak.com)



TRADIZIOA ETA ETXEKO ELABORAZIOAK



TRADICIÓN Y PRODUCTOS CASEROS



**BEREZITASUNAK**

Alemaniar saltxitxak  
Etxeko txorixoa eta txistorra  
Urdaikari artisanala  
...



**ESPECIALIDADES**


Salchichas Alemanas artesanales  
Chorizo y Chistorra casera  
Charcuteria artisanal  
...



# IHAUTERIETAN, EDERKI PASA!!

Pertsonalizatu zure Kutxabank txartela

Sartu [www.ktbk.es/niretxartela](http://www.ktbk.es/niretxartela) webgunean



\* Txartelaren titularrak hartuko du bere gain lagatako irudiak erabiltzearen legaltasunari buruzko erantzukizuna, jakinararen gainean dagoelarik sartutako argazki edo irudiak ez-onartuak izan daitezkeela produktu honen izaeraren kontrakoak izateagatik. Informazio gehiago: [www.ktbk.es/niretxartela](http://www.ktbk.es/niretxartela)  
Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32 48009 Bilbo. IFX: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

kutxabank **k** **ERRAZ  
HURBIL  
ORAIN**